

## ANALISIA



# Irudi bat, irudikeria uxatu alderat



Mikel Asurmendi  
@masurmendi

Hendaiatik ari naiz. Euskaldunon panorama politiko sozialari eite eman nahian. Zein panorama-markoaz ari naiz, baina? *Iparraldea*-z, naski. Abertzaleentzat Iparraldea beren marko politikoa da. Tokiko militanteek edota hautetsiek ez dute Euskal Herria esaten, Iparraldea diote. Frantziar hautetsiek aldiz, *Pays Basque*. Hau da, marko hori Euskal Herri osoa da beraiantzat. Eurentzat badaude ere, *País Vasco* edo *La Navarre*, baina horiek *L'Espagne d(ir)a*. Iparraldeko frantses politikari zenbaiten irudian *Le Royaume de Navarre* ere badagoke. Abertzaleen ilusioan, Nafarroako Erresuma.

Eite edo irudi horiek ez dira kolektiboak, ordea. Ez Iparraldean ez Hegoaldean ez dago Euskal Herri osoko irudi kolektiborik. Abertzaleek –Euskal Herri osatua xede dutenek, dugunok– Euskal Herriaren irudia eraikitzen jardun dute azken 60 urteetan –ETA jaio zenez geroztik–, baina urtealdi hori ez da aski izan, historiatic jaso dugun ilusioa “irudikeri kolektiboa” izateaz harago iristeko.

Hegoaldekoek –egiari zor, abertzaleek baino ez dute hori egiten– Iparraldearen panorama politiko errearen irudia osatzean kontzeptu lausoak erabili ohi dituzte. Badakite gutxi-asko Euskal

Elkargoa sortu berri dela, baina hari buruzko informazioa jasotzean ez dituzte oinarritzko estatistika sinpleenak ezaugutzen. Hona datu soil bakar batzuk: Hendaia Gipuzkoako kornerra da. Hegoaldekoen marko-irudian sartzeko datu bat: Hendaia 17.000 biztanle ditu –4.000 bizitoki ‘bigarren etxeak’ dira– eta udaldian 40.000. Hendaia eta Baiona artean 100.000 gara eta udaldian Lapurdi osoan 500.000 jende ostatu hartzen du. *Côte Basque touristique* delakoa gara. Aldiz, Nafarroa Beherean 28.000 biztanle dira. Zuberoan, 17.000.

Gipuzkoan (1.980 km<sup>2</sup>) 715.000 biztanle dira, 373 pertsona bizi dira km<sup>2</sup> bakoitzean. Zuberoan (815,5 km<sup>2</sup>) 17.000 biztanle. Hendaian (7,95 km<sup>2</sup>) Zuberoan bezainbat biztanle gara: 2.111 kilometro koadroan.

Irun hirian 62.000 bizilagun dira (42 km<sup>2</sup> ditu), 1.453 biztanle kilometro koadroan), Zuberoan 17 biztanle km<sup>2</sup>-ko.

Irudi ikusgarriago bat izan aldera: Irungo Anaka auzoan (5 km<sup>2</sup>) eta Zuberoa osoan jende kopuru bera bizi da.

Tokiko panoramaren irudia egiteko datuak dira, baita analisi politiko soziala egiteko datu lagungarriak ere. Irudi marro bat, gure irudikeria uxatu alderat.

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Urtebete greban



Juan Mari Arregi

Laster beteko da urtea Bizkaiko zahar etxeetako langileak greban direla euren aldarrikapenen defentsan: 35 orduko lan astea jasotzen duen sektore hitzarmena, pertsonal gehiago, asistentzia kalitatea hobetzea, 1.200 euroko soldatak, eta gehigarri edo plusen kobertura handitzea. Gesca-rekin –sektoreko patronal garrantzitsuenarekin– aurre-akordioa lortu eta gatazkari konponbidea emateko itzaropena piztu denean, Lares eta Elbe patronalen intrantsigentziak negoziazioa blokeatu du berriz ere. Hain justu, trabak jarri dituzten elkarte horiek jarraitzen dute finantzazio publiko foral eta lokala jasotzen. Horregatik, zahar etxeetan gehiengo duen ELA sindikatuak Bizkaiko Aldundiari eskatu dio esku hartu dezala egoera desblokeatzeko, nahiz eta honek orain arte ez duen modu baikorrean erantzun.

Egoera horren aurrean, hilabetez hilabete kalean mobilizatzen ari diren grebalariek oinezko martxa bat egin dute joan den astean gatazka ikusarazteko. Gainera, udal erakundeak eta balizko akordioa blokeatzen duten erresidentziak zuzenean interpelatu dituzte ekimen horren bidez. Ibilaldia Bilbon hasi zen eta Bizkaiko hainbat herri igaro ostean Foru Aldundiaren aurrean amaitu zuten urriaren 21ean.

Zutabe horretan parte hartu dutenek deia egin diote foru erakundeari egoera desblokeatu dezan. Sektorean lan egiten duten 5.000 lagunek eta zerbitzatzen dituzten 7.000 adinekoek ez dute merezi instituzio publikoen jokabide hori: patronalen interesei egiten die mesede soilik, langileen prekarietate eta miseriarren bizkar, eta gure zaharrei eskaini beharreko zerbitzua kaltetzen du gainera. Bizkaiko Diputazioak egoera desblokeatu beharko luke orain-txe bertan.